

GERNIKA-LUMO. Zemendira arte egongo da erakusketea Euskal Herria museoan

Zurezko elizak Euskal Herrian

Orain 400 urte inguru, XV eta XVI. mendeetan egindako bobedak dagoz ikusgai museoan



ONINTZA ENBEITA

Jente ugari hurreratu da dagoaneko, Euskal Herria museoko erakusketa barria ikustera.

Onintza Enbeita |

Ars Ligna: egurrezko elizak Euskal Herrian izeneko erakusketea zabaldu dabe Gernika-Lumoko Euskal Herria museoan. Euskaldunek fededun ospea euki izan dabe, eta antza danez, XV eta XVI. mendeetan hainbat eliza zahar barriztau ziran. Orduko idatziek dinoenez, jainkoza-leak ziran euskaldunak eta arrantzak, merkataritzak eta burdina industriak ekarritako aberastasunaren zati bat elizak barritzeko erabili eben.

Barritzaukeran, haretzez egin ebezan modako katedral handietan, harriz egiten ziran beharrik. Harria garestiagoa zalako nekazari inguruentzako eta

zura nahi non egoalako sasoi haretan.

Flandriatik Markinara

Harrigarriena baina, ez da hori. Kanpoko figurak, baseliza eta eleizetan zelan agertzen diren ikustea da bitxieta. Izan be, bertoko izaerea emon jaken egitura barriei Alemaniako, Herbeheretako eta Ingalaterrako estiloei jarraitu arren.

Markinako Oioro baselizan badago kanpoko eragin horren adierazle argia. Flandesko hainbat elizatan agertzen diran izartxoak dagoz baselizako gangan.

Horrek eta beste hainbat elizatan aurkitutako berezitasunek erakusten dabe, bertokoak Europan zehar ibili zirana edo

garaiko estiloaren ganean asko irakurten ebela.

Arrazoa dana dala izanda be, oso estilo kultuak landu ziran XV eta XVI. mendeetan barriztautako gangarik gehienetan. Europan punta-puntakoak ziran estiloak, oso dotore eroan ziran euskal herrietako eliza eta baselizetako sabaietara.

Markinako antzerako berezitasunak dagoz Ibarrangelu, Goiuria, Zaldibar, Urretxu, Zumarraga eta aurkitu diran beste hainbat eliza eta baselizetan. Europan erabili ziran estiloak agertzen dira behin eta barriro, oso era kultuan herritartuta. Erakusketan, bertako eta Europako ezaugarri arkitektonikoak alderatzeko aukerea dago.

IBARRANGELUKO ELIZEA

Erdi Aro amaierako artea, Urdaibain

Urdaibain bertan, badago arte horren erakusgarri argia: Ibarrangeluko elizea. Izar formako zurezko nerbioek osotzen dabe elizearen bobedea. Bobedako margoetan estilo nahasketa nabarmena dago. Izan be, elizearen estruktura, XV. gizaldi amaierakoa edo XVI. gizaldi hasierakoa da, baina bobedako margoak 1559an sinatuta dagoz. Garai haretan, lekuri gehienetako moduan, Neoplatonismoaren eragina argia da margo horretan. Formarik gehienak paganoak dira. Neoplatonismoa, batez be Italian garatu zan. Italiako eragina hain argia izateak, ondorio bardinera garoaz barriro: edo Ibarrangelutarren bat Italian ibilia zan, edo asko irakurri eban garaiko estilo artistikoen ganean. Dana dala, Ibarrangeluk komunikazioak itsasoz garatu izana izango da Neoplatonismoa herrira heltzeko arrazoi nagusia.

Urdaibaiko jenteak Ibarrangelun elizea ezagutzen ez dauela kontuan hartuta, eta erakusketearen gaiagaz bat datorrela aprobetxauta, Euskal Herria museoak bisita gidatuak antolatu dauz elizara, bertara. Bisitea egin gura dabenek, gitxienez 8ko taldea osotu eta museora deitu beharko dabe 94 625 54 51 telefonora.

ARRATZU. Herrian zehar egin leitekezan ibilbideak erakusten dira gidan, plano baten bidez

'Arratzu: ezagutzeko dozun Urdaibaiko altxorra' izeneko gidea argitaratu dabe

O. E. |

Arratzuko udalerriaren ganeko gidea kaleratu dau Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuak. Gidea dohainik hartu leiteke Gernika-Lumoko turismo bulegoan edo interes turistikoak hartzen dabezan beste hainbat lekutan: museoak, Udetxea Jauregia... Arratzuko Udalean be, emongo dabez gidea eta haren ganeko informazioa.

Arratzu: ezagutzeko duzun Urdaibaiko altxorra izena jarri deutso Patronatuak gideari. Bertan, Arratzun zer ikusi leitekean ezeze, ze ekintza egin leitekean be azaltzen da gidearen barruan.

Herrian zehar egiteko ibilbideak proposatzen dauz Patronatuak: Golako ibaiaren ibilbidearen zeharreko paseoa, Donejakue bidea eta baserrien ibilbidea (autoz edo bizikletaz egin leitekena) nondik nora do-

azen laburtzen dau herriaren ganeko gideak.

Ikusi leitekena

Ikusteko barriz, eskola zaharra, Udaletxea, landazabala, Urdabaiko Biosferaren Erreserbaren barruan ondoen mantentzen dan hariztia, baserriak, Santo Tomas elizea eta Artzubiko zubia gomendatzen dabez Urdabaiko Patronatutik.

Gidearen erdiko orrialdeetan,

udalerriaren mapea dago. Bertan dago markauta, ibilbideak nondik norakoak diran. Ibili ostean gosetzen direnentzat jateko lekuen barri be emoten dau herriko gida barriak.

Urdaibaiko Patronatuak eskualdeko ohiko turismo guneetatik aparteko lekuak bultzatzeari ekin deutso gideagaz. Urte hasieran Galtzagorriak Ingurugiro Boluntarioen Taldeak eskualdeko ibilbideen gidak kaleratu ebazan, eta orain jente gitxi heltzen dan udalerritateko interesguneak zabaldu daiz Patronatuak.

GERNIKAKO PLAZEA

Barazkizaleak poztu leitekez, baserritarrak bainak saltzen hasi dira eta

O. E. |

Bainek sortu eben arretarik handiena atzo, Gernikako plazan. Sasoiako lehenengoak izan ziran atzo saldu ziran bainak, eta estimazino handia euki eben. Kiloa 500 pezetan saldu zan, baina salneurriari asko begiratu barik erosi ebazan jenteak.

Tomate kiloa 650 eta 700 pezeta bitartean mantentzen da. Halandabe, baserritarrak ez ziran atzo pozik egon, jenteak salneurria jeisteko eskatzen ebala eta.

Piperrek beherantza jarraitzen dabe. Atzo, 150 pezetaren bueltan saldu zan dozenea. Aurreko astelehenean baino, bost ogerleko merkeago hain zuzen be.

Osterantzean, bardin mantendu ziran salneurriak: letxugea 150 pezeta, azelga kiloa 125 pezeta, limoi kiloa 200 pezeta, indaba kiloa 500 pezeta, kalabazea 150 eta 200 pezetaren artean, ider kiloa 240 pezeta, kipula txortea 150 pezeta eta baba kiloa 300 pezeta.

Zapatuetako azokea

Bagilaren 2an, aurtengo lehenengo azoka berezia egin zan Gernika-Lumoko merkatu plazan. Zapatuetako azoka bereziak bagiletik urrira egiten dira hile baktzeko lehenengo zapatuan.

Halandabe, inguruko baserritar batzuk, zapaturo egoten dira plazan. Joan zan zapatuan izan zan lehenengo azoka arrunta eta mogomendu handia ibili zala esan eben saltzaileek.

Izan be, aurreko zapatuan azoka berezia izanda, normalagoa egin jaken baserritarrei jente asko egotea. Zapatuan, baina, baserritarren ekoizkinak erostera joan zan jentea plazara beren beregi.

Zapatuetako azokara astelehenean baino saltzaile gitxiago joaten da eta ez da hara eta honako saltzailek izaten. Halandabe, ordutegi eta funtzionamendu aldetik, astelehenetakoaren bardina izaten da.